

## Loatzora, lasterka

XIV. Loatzoko Igoera-Jaitsiera igandean, Uxo Toki elkarteak deituta ▶ 4



Harpidedunei banatua ▶ Asteazkena ▶ 2006-04-26 ▶ IV. urtea ▶ 869. zenbakia ▶ [www.tolosaldeko-hitza.info](http://www.tolosaldeko-hitza.info)

# Epaiaren zain dago orain Jose Atanesen sendia

**ALEGIA** ▶ Herenegun eta atzo epaitu zuten duela bi urte Alegian Jose Atanes tiroz hil zuen ertzaina

**ESKAERAK** ▶ Akusazio partikularrak lau urteko kartzela zigorra eskatu du; fiskaltzak, bi; defentsak, absoluzioa ▶ 5

IBARRA ▶

## Liderraren parean jarraitzen du Ibarrek

9-1 irabazi dio Xota taldeari ▶ 6

## Bi eskualdeak lotu ditu Gaztetxe Martxak, festa eta aldarrikapen giroan

**TOLOSALDEA-LEITZALDEA** ▶ Leitza, Tolosa, Villabona, Anoeta eta Ibarrek gaztetxeek prestatuta, ekitaldi ugari egin zituzten atzo ▶ 7

J. ASTIBIA



TOLOSA ▶

## «Etsipena eta harridura sortu dizkigu parte-hartzea galarazteak»

Gerontologikoaren aldeko plataformak ezin izan du hitz egin Batzar Nagusietan ▶ 3

TOLOSA ▶

## Voith-Gorostidiko etxebizitzaren oinarriak, zehaztuta

Informazio triptikoa kaleratu du Udalak; izen-ematea, maiatzaren 2tik ▶ 2

hitza  
argazki  
lehiaketa



bidali argazkiak


**ARGAZKIAK NORA BIDALI**

▶ P. elektronikoa: [tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info](mailto:tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info)  
▶ Postaz: Argazki lehiaketa. Tolosaldeko eta Leitzaldeko Hitza. Araba etorb 5, atzea • 20400 TOLOSA  
Nahi baduzu, argazkiak Tolosako edo Leitzako HITZaren egoitzetara ekarri  
**OINARRIAK:** [www.tolosaldeko-hitza.info](http://www.tolosaldeko-hitza.info)

Sari nagusia

## BIDAIA paregabe bat zure neurria

2 lagunentzat 5 eguneko egonaldia, mantenu erdiarekin Asturiasen edo Costa Bravan



Bidaia Agentzia  
**bidaide**  
[www.bidaide.gruposercor.com](http://www.bidaide.gruposercor.com)

Erniobera, 6-behea • 20150 Villabona  
Tel.: 943 692 693  
[bidaide@gruposer.com](mailto:bidaide@gruposer.com)

ZOKETA APARTAK



**PARTE-HARTZAILE ETA BOTOEMAILE** guztien artean HITZaren mobilta eta mendiko gerriko poltsa zozkatuko dira





GIZARTEA ▶

# Voith-Gorostidi eremuko etxebizitzaren oinarriak, zehaztuta

Udalak triptiko bat kaleratu du, herritarrentzat informazio orokorra eskainiz; dudak argitzeko bulegoa ireki dute

NOELIA LATABURU

Guztia prest du Tolosako Udalak Voith-Gorostidi eremuko etxebizitzetako izen-emateari ekiteko. Horretarako triptiko bat kaleratu du, non baldintza orokorren eta izena emateko moduen berri ematen duen. Atzo aurkeztu zuten, hain zuzen, aipatu triptiko informazioa, udalaren eginiko ekitaldian. Aitziber Lazkano udal langileak dudak argitzeko «prest» dagoela azaldu zuen, eta horretarako egongo da irekia bulegoa hilabete hauetan, irailaren 30era arte.

Maiatzaren 2an emango diote hasiera zerrendan izena emateko epeari. Bide desberdinak ahalbiderratu dituzte horretarako. Bi motatako etxebizitza mota zozketatuko dituzte bertan, eta bakoitzak bere prozesua jarraitu beharko du. Toki-babeseko etxebizitzaren kasuan baldintzak honakoak dira: Tolosan erroldatuta egotea 2003ko urtarrilaren 1etik aurrera, edo udalerrian 15 urte bizi izana. Ez izatea etxebizitzarik ez jabetzan, ez jabeago solean, ez lurrazal eskubiderik edo usufurkaturik (oinarrietan agertzen diren egoera partikularretan izan ezik). Eta, azkenik, diru sarretrak gutxienez 12.000 euro eta gehienez 43.000 euro artekoa izatea.

## Dudak argitzeko, txandak

Interesatuak dokumentazioa aurkeztu beharko dute baldintza pertsonalak eta ekonomikoak justifikatzeko. Hala, NAN-ren fotokopia, erroldaren ziurtagiria eta 2005eko PFEZren fotokopia (aurkezteko obligazioa dutenek) eta ziurtagiria —zerga ordaintzeko ez diren



Atzo aurkeztu zuten, udalaren, proiektuko triptikoa. MARTA SAN SEBASTIAN

## HAINBAT DATU ▶

### TOKI-BABESEKOAK

**Baldintzak.** Tolosan erroldatuta 2003ko urtarrilaren 1etik edo Tolosan 15 urte bizi izana; ez izatea etxebizitzarik jabetzan, ez lurrazal eskubiderik edo usufurkaturik. 12.000 edo 43.000 euro arteko irabaziak izatea.

**Dokumentazioa.** NAN; erroldaren ziurtagiria; PFEZ aurkezteko: 2005eko fotokopia eta zerga ordaintzeko ez diren prestazioak kobratzekotan, ziurtagiria. PFEZ aurkeztu behar ez dutenek: errenta aitortpena aurkeztu behar ez izanaren ziurtagiria. Lan bizitzaren ziurtagiri eguneratua. Pentsioa edo beka, prestazio, soropen edo diru laguntzak kobratzen dutenen kasuetan: erakundeak

emandako ziurtagia. Eta, soldatako langileek, 10-T ziurtagiria.

**Izena emateko modua.** Inprimakia eta dokumentazioa udalaren erregistroan entregatu.

### BABES OFIZIALEKOAK

**Baldintzak.** Etxebizitza emanda egotea; Tolosan erroldatuta 2003ko urtarrilaren 1etik edo Tolosan 15 urte bizi izana.

**Izena emateko modua.** 2003tik erroldatuak: galdetegia bete udalaren; 15 urtez erroldatuta bai baina baldintza betetzen ez duenak: eskabide orria bete, NAN fotokopia, Etxebizitza inskripzio agiria eta erroldaren ziurtagiria.

prestazioak kobratzekotan—. PFEZ aurkezteko obligazioa ez dutenek, aldez, bestelako agiri beharra dute; errenta aitortpena behar ez izanaren ziurtagiria eta lan bizitzaren ziurtagiri eguneratua. Halaber, soldatako langileek 10-T ziurtagiria azaldu behar dute. Eta, pensioa, beka, prestazio, soropen edo diru laguntzaren bat kobratuz gero, ordaintzen

duen erakundearen prestazioen ziurtagiria ere beharko dute.

Bada, bertan izena emateko interesa dutenek inprimakia eta dokumentazioa udalaren erregistroan aurkeztu beharko dute. Laguntza nahi izanez gero txanda eskatu behar dute 943 69 74 91 zenbakian edota [www.tolosakoudala.net](http://www.tolosakoudala.net) webgunean. Udalak gai honetarako egokitu duen bulegoan hitzordua izateko.

Babes ofizialeko etxebizitzetarako bat eskuratu ahal izateko ere hainbat baldintza eskatzen dituzte: besteak beste, Etxebizitza emanda egon beharko dute interesatuak eta Tolosan erroldatuta egotea 2003ko urtarrilaren 1etik edota Tolosan 15 urte bizi izana.

## iragarki laburrak ▶

### GALDUTAKOAK

**Betaurrekoak.** Eguzkitako betaurreko beltzak galdu ditut Triangulo inguruan. Aurkitu dituenak deitu 619 480 701 telefono zenbakira.

## TOLOSALDEKO HITZA.INFO

**Eztabaida.** ETAre su-eten iraunkorra dela-eta bake prozesua gertuago ikusten al duzu? Sartu webgunean eta eman zure iritzia.

HEZKUNTZA ▶

## 3 ikastaro berri Lanbide Heziketa Institutuan

Tolosaldea Goi mailako Lanbide Heziketa Institutuan jakitera eman duenez, gaur, Etxebizitza instalazioak, Berokuntza instalazioak eta Artezaillau zilindrikoak ikastaroak hasiko dira. Hiru ikastaroak doakoak izango dira, diru laguntza Hobetuz eta Europako Fondo Sozialak ematen duelarik. Izen-ematea ikastetxean bertan egin daiteke, edo 943 65 11 47 telefono zenbakian.

KULTURA ▶

## Zubizarretaren poesia emanaldia Aranburun, etzi

Patxi Zubizarreta idazleak poesia emanaldia eskainiko du, etzi, 20:00etatik aurrera. Aranburu Jauregia aukeratu du ekitaldi honetarako eszenatoki bezala.

NATURA ▶

## Emakumea eta hiria hizpide gaur, natur jardunetan

Naturgintza jardunaldiekin jarraituz, gaur hirugarren saioa izango da *Emakumea eta hiria: sestengagarritasun afektiboa* izenburuarekin. Hizlari lanetan Teresa del Valle (EHUko Gizarte Antropologiako katedraduna) eta Isabela Velazquez (arkitekto hirigilea eta ingurumeneko aholkularia) ariko dira, eta aurkezlea Arantxa Urretabizkaia idazle eta kazetaria izango da. 20:00etan izango da hitzaldia, Kultur Etxean.

POLITIKA ▶

## Jonan Fernandez, Baketik fundazio berriko zuzendaria

Jonan Fernandez Arantzazu Baketik fundazioko zuzendari berria da. Helburua «gatazkak modu etikoan konpontzen laguntzea» izango da. Herenegun Donostian eginiko agerraldian esandakoaren arabera, «gatazka guztiak, ez soilik politikoak» landuko dituzte. Hiru organo izango ditu fundazioak: zuzendaritza kontseilua, aholkularitza batzordea eta zuzendaritza taldea.

KIROLA ▶

## Nerbioi ibaia gurutzatuko du Carlos Peñak, larunbatean

Chernobil elkarteari laguntzeko egingo du igeri, ezbeharraren 20. urteurrenean

N. LATABURU

Carlos Peña igerilari eta abenturazale tolosarrak erronka berri bati egingo dio aurre larunbatean. Chernobilleko ezbeharraren 20. urteurrena dela eta, Nerbioi ibaia zeharkatuko du igeri Laudiotik hasi eta Portugalera. 10 orduz 40 kilometro inguru egingo ditu Tolosakoak.

Bertan biltzen den dirua Chernobil elkarteari emango dute, hain zuzen ere, ezbeharraren ondorioak jasaten ari diren milaka pertsonak laguntzeko.

## TELEFONOAK ▶

### Larrialdiak. ((112)) Osasuna.

- ▶ Alegialdea. Osasun z.: 653212
- ▶ Anoeta-Alkiza-Hernialde. Medikua: 65 23 39
- ▶ Asteasu. Medikua: 692423
- ▶ Baliarrain. Medikua: 889003
- ▶ Berastegi-Elduain. Medikua: 683361
- ▶ Bidegoian. Medikua: 681134
- ▶ Ibarraldea. Osasun etxea: 672411
- ▶ Ikaztegieta. Medikua: 653329
- ▶ Iruia. Osasun zentroa: 690720
- ▶ Leitza. Osasun z.: 948 510800
- ▶ Orendain. Medikua: 655595
- ▶ Oresa. Medikua: 682228
- ▶ Tolosa.

- ▶ Anbulatorioa, larrialdia: 461111
  - ▶ San Esteban: 006800
  - ▶ Gernikako arbola: 006900
  - ▶ Amarozko dispen.: 672637
  - ▶ Asunzion Klinika 675799 - 67 53 90 (larrialdiak)
  - ▶ DYA: 672536
  - ▶ Gurutze Gorria: 674888
  - ▶ Villabona. Anbulat.: 006970
  - ▶ Zizurkil. Aiztondo zerb: 693930
- Garraioak.**
- ▶ Renfe: 902 24 02 02
  - ▶ Donostiako autobusa: 361740
  - ▶ Tolosaldea bus: 650621
  - ▶ Leitzaran autob.: 948 221015
  - ▶ Taxia: 670420
  - ▶ Taxia (Leitza): 608 873016
- Besterik.**
- ▶ Ertzaintza: 538820
  - ▶ Tolosa-Udaltzaingoa: 675858
  - ▶ Tolargi: 650016
  - ▶ Iurrarmendi egoitza: 670325
  - ▶ Tolosa gasa: 675320

**GERONTOLOGIKOA ▶**


Tolosako Gerontologiko berriaren aldeko plataformako partaideetako batzuk. NOELIA LATABURU

# Ez diete utzi Batzar Nagusietan sartzen

«Parte-hartzea galarazteak etsipena eta harridura sortu dizkigu», azaldu du Gerontologikoaren aldeko plataformak

**ESTI ZEIZIA**

Orain dela egun batzuk, Gerontologiko berri baten aldeko plataformak, bere ekimenen artean, Batzar Nagusietara jotzea erabaki zuen. Izan ere, Tolosaldean, Euskal Herria plaza-ko Gerontologikoaren itxieraren ondorioz sortutako «egoera larriaren» berri eman nahi zuten: itxaron zerrenda luzeen berri, erresidenteak inguruko eskualdeetara eraman behar izatea...

EAJren eta EAren kontrako botoen ondorioz, bertan agertzea ukatu zitzaion plataformari. Aldiz, PSE, PP eta Aralar alderdiek Gerontologikoaren aldekoen ahotsa Batzar Nagusietan agertzearen aldekoak izan ziren. Baina hauek, gutxiengoa direnez, ez zuten ezezkoan aldaketarik ekarri. Bestetik, EBri dagokionez, ez zen batzarrera gertu.

Plataformako kideen esanetan, «Batzar Nagusietan parte-hartzea galarazteak, etsipena

eta harridura sortu dizkigu». «Hitza eta beren egiaren berri emateko eskubidea ukatu izanak, instituzio horren, edo aurka bozkatu zuten partiduen beldurra behintzat agerian uzten du», salatu zuten, halaber. Haien ustetan, «beraien erantzukizunez sortutako egoeraren berri izateko beldur dira. Azken finean, haien egiaren beldur».

Gerontologikoko ordezkarien ustetan, «ulergaitza» da Ezker Batua ez agertu izana batzarrera, «Tolosalderako horren ondorio larriak dituen gaiari buruz hitz egiteko». «Ez eta EAK plataforma azaltzearen aurka bozkatu izana». Dena dela, aukera hori ukatu arren, «gizarte eragile desberdinekin irtenbideak bilatzen jarraitu, eta partidu politikoekin osatu duten lantaldea bultzatzen segitzeko asmoa» berretsi dute.

«Aipatzekoa da, Ezker Batua Batzar Nagusietan agertu ez bazen ere, eta Eusko Alkartasunak aurka bozkatu baldin

bazuen ere, Tolosan honen inguruko kezka adierazi dutela, eta plataformarekin elkarlanean ari direla». Azken hauek adierazi dutenez, helburu bakar eta argia dute: «Eskualdeko beharrei erantzuneko dien Gerontologiko berria egin eta Tolosaldean eduki beharko ez luketen arazo horri irtenbide bat ematea».

«Gerontologikoa ixteko erabakia hartu zutenak, EAJkoak, Gerontologikoaren itxiera onartu zutenak, Batzar Nagusietan hitza ukatu» dietela azpimarratu dute plataformakoek. «Tolosan Gerontologiko berria egitearen aldeko lantaldean parte hartzen ari ez diren bakarrak EAJkoak dira. Zentroa ixteko erabakia hartu zuena, Udal Gobe- nutik babesa eman zion berbera, orain Batzar Nagusietan hitza ukatu dieguna eta Tolosan gerontologiko berria egitearen aldeko lantaldean parte hartzen ari ez den bakarra, beraz, alderdi politiko bera da», salatu dute.

**SASKIBALOA ▶**

## Tolosa Aralarrek mailan mantentzea lortu du

79-54 irabazi zuen larunbatean, Leioa Artearen aurkako norgehiagokan

**ERREDAKZIOA**

Arrisku handiko partida zuten Tolosa Aralar-ekoek larunbatean, Usabalen. Eta Aste Santuko oporrak eta gero, denboraldiko 16. garaipena lortu zuten Leioa Artearen aurka. 79-54ko emaitza honen ondoren, eta bi jardunaldi falta direnean, maila mantentzea lortu dute Tolosakoek. Kasurik txarrenean, seigarren postua ziurtatuta dute, eta onenean, laugarren geratuko dira. Beraz, geratzen diren bi jokaldietan, urdinen helburua ahalik eta postu altuenean amaitzea izango da.

Leioakoek talde altua dute oso, bi metrotik gorako jokalaria ugari dituzte, eta errebotean min handia egun zuten. Hala ere, aurkariak lan gutxi eman zieten etxekoei.



TAKE Aralar, Astigarragan. HITZA

Datorren partidua Laudion izango dute, bertako Sugarrak de Laudio taldearen aurka. Joanekeo partida tolosarren denboraldiko txarrena izan zen, eta arabarren aurrean beste aurpegi bat erakutsi nahiko dute oraingoan. Norghegiako larunbat arratsaldeko 18:30ean izango da.

**ARETO FUTBOLA ▶**

## Oraingoan ezin izan dute irabazi Hegoaldekoek

**ERREDAKZIOA**

Emakumezkoen Ohorezko Mailan, gutxiatik, baina, garaipenik gabe geratu ziren Hegoaldekoak. 7 eta 5eko emaitzarekin galdu zuten Tecnocasa Mostolesen aurka. 25. jardunaldi honen ondoren, sailkapeneko 7. postuan aurkitzen dira Tolosakoak.

Erasoan indartsu ibili zen Hegoalde; honela, norghegiogokaren zati handi batean, nagusi izatea lortu zuen. Nahiz eta hasiera batean iruditu He-

goaldekoek irabazi behar zutela. Pituk jarraian sartutako hiru golekin garaipenerako bidea ireki zuten madrildarrei. Azken zatian, bi taldeek ere golak sartzeko aukera ugari izan zituzten, baina honek Tecnocasari ekarri zizkion onura handienak, 7 eta 5eko emaitzarekin irabazi baitzuen.

Hurrengo jardunaldia etxean jokatuko dute Hegoaldekoek. C.D. Futsi Navalcarnero izango dute aurkari. Talde hau sailkapeneko 2. postuan dago, lehenetik puntu batera.

**iragarki laburrak ▶**

**Basabi Inmobiliaria**

Pablo Gorosabel, 40  
 1. planta - 7. bulegoa  
 20400 TOLOSA  
 Telf. eta Fax: 943 65 55 87  
 Email: 669 368 994

**Alkiza.** Eraikitzen ari diren bi familientzako etxea, erdisotoa eta hiru solairu.

**Alkiza.** Familia bakarreko txaleta, 4.000 m2 dituen lursailarekin. 120 m2 dituzten 3 solairu.

**Andoain.** Santa Kruz auzoan, 80 m2 dituen etxebizitza salgai. Erabat berritua. Dena kanpoaldera. Igogailuarekin.

Ikuspegi ederrak.

**Anoeta.** Duplex etxebizitza

estreinatzeko, lau logela, bi bainugela, egongela, sukaldea eta terrazarekin. Garajea aukeran.

**Belauntza.** Bi familientzako etxea. Bi solairu, 270 m2-ko lursaila.

**Berastegi.** Familia bakarreko txaleta salgai. 3.500 m2-ko lursailarekin.

**Elosua.** Berrikuntza behar duen baserria salgai. 35.000 m2-ko lursailarekin.

**Tolosa.** Zumalakarregin, 150 m2-ko etxebizitza. Egoera ezinhobearen. Garajea aukeran.

**Tolosa.** Pablo Gorosabel. Eraikuntza berrian azken etxebizitza salgai. 65 m2 erabilgarri.

**Tolosa.** Santa Maria plazan etxebizitza salgai. Hiru logela, egongela, sukaldea, bainugela eta komuna. Egoera ezinhobearen.

**Tolosa.** Trinkete plaza, 3 logelako etxebizitza, egongela, sukaldea

terrazarekin, bainugela eta komuna, garaje itxia.

**Tolosa.** Belaten, trasteleku berriak salgai argiarekin eta aire-erazgailuarekin. 9.480 eurotik aurrera.

**Tolosa.** Berdura plazan, berrituriko lokal komertziala salgai. **Guztia erakusleho.**

**Tolosa.** Pablo Gorosabel. Izkina egiten duen 45 m2-ko lokal ederra salgai.

AMASA ▶ KIROLA

# Loatzoko Igoera-Jaitsiera antolatu dute iganderako

Hamalagarren edizioa izango da; izena, egun berean, Uxo-Toki elkartearen

IMANOL GARCIA

Loatzoko Igoera-Jaitsiera izango da igandean. 14. edizioa da aurtengoa. Ohi bezala, irteera 10:30ean izango da antolatzaile lanetan aritzen den Amasako Uxo-Toki elkartetik, eta kirolariak Loatzoko gainera igo beharko dute eta berriz ere Amasako plazara jaitsi. 631 metroko garaierara igo behar dute korrikalariak. Gorako eta beherako bidea desberdina izaten da.

Izen-ematea igandean bertan egin behar da Uxo-toki el-



Lamot, Ait Chaou eta Garin, iazko proba amaitu ondoren. HITZA

kartean. Ez da proban parte hartzeagatik ezer ordaindu beharrik. Parte-hartzaile kopurua eguraldiaren menpekoa izan ohi da, baina 55-60 lagun inguruk ematen dute izena proba honetan, iaz 46 lagunek parte hartu bazuten ere.

Bai gizonetako eta bai emakumetakoetan lehenengo hiruek sariak izango dituzte, hau da, hurrenez hurren, 90, 60 eta 50 euro. Horrez gain, parte-hartzaile guztien artean zozketa bidez opariak banatuko dituzte: txuleta, oilaskoak, untxiak, arkumea, gazta, bakai-

laoa, afaria, ardo botilak... Lehenengo hiruek zuzenean jasoko dute sari hauetako bat eta beste guztiak zozketatuko dira. Parte-hartzaileek, beraz, egindako esfortzuaz gain, opari bat eramateko aukera izango dute. Bestalde, aipatzekoa da ikusleentzat ere doako hamaiketakoa banatuko dela baita Loatzon baita Uxo-Toki elkartearen ere.

Azken bi urtetan Ramuntxo Lamot sararrak irabazi du proba gizonetakoetan. Iaz bigarren Jose Javier Cuadrado zaldibiarra izan zen, eta hirugarren postuan Hassan Ait Chaou billabonatarra amaitu zuen. Proba honetan ohikoa den Aritz Garin billabonatar gaztea bosgarrena izan zen. Emakumetakoetan, berriz, Zizurkilen bizi den Nerea Amilibia aiarra izan zen lehena. Ondoren, Izaskun Zubeldia billabonatarra eta Kontxi Blanco anoatarra iritsi ziren bigarren eta hirugarren postuan.

ALKIZA ▶ AZPIEGITURAK

## Alkizako herrigunetik Asteasura doan errepidea konponduko du Aldundiak

Alkizako Udalak egindako eskakizunari erantzuna eman dio erabaki horrekin

ERREDAKZIOA

Gipuzkoako Foru Aldundiak GI-3630 errepidearen zoruaren konponketa lanak burutuko ditu, Alkizako herrigunetik hasi eta Asteasun GI-2631 errepidearekin bat egiten duen arte. Horrela, Foru Aldun-

diak Alkizako Udalak egindako eskakizunari erantzungo dio.

Diputatuen Kontseiluak onartu du proiektu honen obrak egiteko eskaintza, 2004-07ko Aparteko Planaren baitan. 811.000 euroko aurrekontua izango du, eta lau hilabete epea obrak burutzeko.



Errepidearen zorua egoera kaskarrean dago. I. GARCIA

Bestalde, eta Alkizako Udalak hainbatetan egindako eskakizunaren harira ere, errepide horretako lau bihurgune zabalduko dituzte, ikuspen

arazoak ematen baitituzte. Bihurgune horiei 5,50 metroko zabalera emango diete eta bi autokaldi berean leku horietatik igaro ahal izango dute.

ASTEASU ▶

## Santakruzetako herri afarirako txartelak salgai

Asteasuko Elizmendi auzoan Santa Kruz jaiak ospatuko dituzte asteburu honetan. Jai horien baitan, larunbatean herri afaria antolatu dute. 21:00etan hasiko da eta Erretore Etxean egingo dute. Helduak 20 euro ordaindu behar dituzte eta haurrek —12 urtera arte— 15 euro. Plater nagusia txuleta entsaladarekin izango da, eta menuan postrea, kafea, kopa eta purua sartzen dira. Txartelak Ogi Zuri okindegian eros daitezke, eta afarian parte hartu nahi duten interesatuek bihar dute azken eguna horretarako.

ADUNA ▶

## Tutorearen bisita izango dute etzi KZgunean

Adunak KZgunean tutorearen bisita jasoko du etzi, hilaren 28an. 09:00etatik 13:00etara izango da bertan eta bi ordutan zehar, 10:00etatik 12:00etara, mintegia emango du. *Flashget* programari buruz zabalduko du informazioa tutoreak. Gogoratu nahi dute, bestalde, Adunak KZgunea astearte eta ostiraletan izaten dela zabalik, eta bere ordutegia 17:30etik 19:30era dela.

Zatoz ezagutzera

Katuki honekin PEUGEOT modeloen kumaldia haziko da

207

PEUGEOT

TOLOSA MOTOR, S.A.  
San Esteban auzoa, 14-A • 20400 Tolosa (Gipuzkoa)  
Tel.: 943 65 03 37 • Faxa: 943 65 29 38 • tolosa@tolosa.redpeugeot.com

ALEGIA ▶ GIZARTEA

# Epaiaren zain daude orain Jose Atanesen familiakoak

Astelehenean eta atzo epaitu zuten duela bi urte Alegian Jose Atanes tiroz hil zuen ertzaina

NEREA URBIZU

Sententziaren zain geratu da Atanes sendia eta tiroa egin zuen ertzainaren epaiketa. 2003. urteko abenduaren 19an gertatu zen ezbeharra, Alegiara sartzeko N-1 errepidearen parean, bihurgune handiaren aurrean. Eta astelehenean eta atzo izan zen Jose Atanesen kasuarekin loturik dagoen epaiketa.

Astelehenean bertsio guztiak entzun zituzten epaitegian: Atanesen sendiarena eta Edurne Cornejo neska-lagunarena batetik, eta beste aldetik ertzaintzarena.

## Entzundako bertsioak

Entzundakoak oso azalpen ezberdinak izan ziren: neska-laguna, testigu zuzena izan zenak dioenez, berak bi kotxeetan bigarrena gidatzen zuen, eta haiekin zihoan aurreko kotxea errepidearen bazterrean zegoela ikusirik, gelditu egin zuen. Harekin Jose Atanes zegoen.

Kontrako norabiderako karrilean zihoan kamioi bat geldirik zegoen ertzainekin, eta Josek jaistea pentsatu zuen, gertatu zenaren berri jakiteko.

Kamioiarekin zegoen ertzainak errepidea gurutzatu eta harengana hurbildu zen, geldirik egoteko oihukatuz. Hala egin zuen, neskaren esanetan, Josek. Ertzainak pistolaz buruan kolpea eman zion eta bigurutzera eraman zuen arrastaka.

Ertzainen arabera, geldirik zeuden bi autoak susmagarriak ziren. Ertzaina, hori ikusita, hara hurbiltzen hasi zen, eta Jose Atanesengana zuzendu zen. Atanes oldartu egin omen zen.

Neska-lagunak hori ezeztatu egiten du, «Atanes, baxua eta argala» zelako; «nola egingo zion eraso ertzaina bati». Ertzainak «tiroak alde egin ziola» esan zuen. Tiroak buruan eman zion Atanesi.

Adituen testigantzak entzuteko aukera izan zen ere Donostiako auzitegian. Bi mendi-ku forenseren arabera, bi zauri

## TIROA

Ertzainak «tiroak alde egin ziola» esan zuen epaiketan; tiroak buruan eman zion Atanesi, eta hil egin zen

zituen Atanesek. «Bata sudurrean eta bestea masailean. Tresna luze batekin jota egina dagoela dirudi. Pistola baten kulatarekin egina izan liteke, edo auto baten kolpe-leungailuarekin. Posible da tiroa jaso eta lurrera erortzean autoaren kontra jo izana».

Ikerketa horien guztien emaitzek, beraz, ez dute argi adierazten zauri horiek zer eragin zituen.

## Kartzela zigorra

Akusazio partikularrak lau urteko kartzela zigorra eskatu du. Gainera, sei urtetan ertzain lanetan ez aritzea, eta sei urtetan armak izateko eta soinean eramateko eskubidea ukatzea. Horrez gain, Atanes familiarentzat eta Edurne Cornejorentzat 810.000 euroko kalte-ordaina eskatu du.

Fiskaltzak, bere aldetik, bi urteko kartzela zigorra eta lau urteko gaitasungabetzea eskatu du. Atanesek neska-laguna eduki arren, elkarrekin bizi zirela ezin dela frogatu esanez, gurasoentzat soilik eskatu du kalte-ordaina; 70.850 euro, hain zuzen ere.

Defentsak, bere aldetik, ab-soluzioa eskatu du.

## Jaurlaritzak keinurik ez

Ia bi urte eta erdi igaro dira gertaera izan zenetik: denbora honetan Eusko Jaurlaritza ez da familiarekin harremanetan jarri. Haiekin kontaktua izan duen bakarra Beasaingo Udala izan zen, han bizi baitzen hildakoa.

Bestalde, Ertzainaren gutun bat ere jaso zutela azaldu zuten gurasoek. «Egin zuenagatik barkamena eskatu zion amari», Vicente Atanesek gogoratu zuenez.



Jose Atanes hil zuen ertzainaren aurkako epaiketa, Donostian. J.C.R./ARP

ALEGIA ▶

## Afaria Lehen Bertso Paper lehiaketako sariak emateko

Etzi elkartuko dira Intxurren; irabazi duten bertsoak ere abestuko dituzte

N. URBIZU

Bertso afaria antolatu dute, etzi, Alegiako lehen bertso paper lehiaketako irabazle guztiei sariak banatzeko, Intxurre elkartearen. Afarira joateko txartelak taberna guztietan eta Kultur Etxean egon diren dirak salgai, 12 eurotan. 20:30ean hasiko da afaria. Baratzuri zopa eta saheskia jango dute. Ondoren, betiko kantuak eta bat bateko bertsoak ere botako dituzte, irabazi duten bertsoez gain.

# ULERTZEKO Garai Berria

# berria<sup>2</sup>

IBARRA ▶ ARETO FUTBOLA

# Liderraren parean jarraitzen du Ibarrak garaipena eskuratuta

9-1 irabazi zuten Xota taldearen aurka; Iñigo Arrospide jokalarik jubenilak estreinako zokatu zuten nagusiek

## ERREDAKZIOA

Ibarra areto futbol taldeak etxean, Belabieta kiroldegian, aurtengo denboraldiko azken partida jokatu zuen iragan larumbatean, beste garaipen bat erdietsi zuelarik. Jose Manuel Tobias Ibarrakoen prentsa arduradunak azaldutakoaren arabera, jende ugari izan zen

kiroldegian, eta etxeko taldeak eskaini zuen partida paregabeaz gozatu zuten. Paregabea, izan ere, Xota talde nafarra baino gehiago izan ziren ibarrak partida osoan, eta hori 9-1eko azken markagailuan argi nabari daiteke.

Hasi bezain pronto egin zen Ibarra partidaren jabe, eta zazpi minutu igaro zirenean jarri

zen aurretik; Karrerak, baloia lapurtu eta bigarren zutoinera bota zuen bertan zegoen Pradosek sare barruan sartzeko. Minutu bat nahikoa izan zuten bigarrena sartzeko; kasu honetan ere Karrera eta Prados izan ziren jokaldiaren protagonistak. 15. minutuan, Hautsiren eta Labakaren arteko jokaldian, azken honek sarturiko

gola iritsi zen. 3-0ekoa zen. Atsedenaldira iristeko bi minutu baino ez zirenean geratzen beste jokaldi eder bat burutu zuten ibartarrek; Lander Camiok diagonalean pasatu zion Pradosi, eta honek laugarrena sartu zuen. Bazirudien emaitza horrekin amaituko zela lehen zatia, baina Camio baloiarekin egin, Karrerari pasatu, eta honek bosgarrena sartu zuen. 5-0ekoarekin joan ziren aldageletara.

Bigarren zatian nafarrek atezaina jokalarik bezala erabili zuten, Ibarra defentsan lan gehiago egitera derrigortuz. Hala ere, Ibarra izan ziren golak egiten jarraitu zutenak. Labakak sartu zuen seigarrena, eta ondoren nafarren baka-rra iritsi zen. Pradosek, Josebak (bere atean) eta Hautsirik sartu zituzten hurrengo 3 golak. Azkenean, 9-1 markagailua, Ibarren alde.

## SAILKAPENA ▶

Taldea	Puntuak
1. Atenea	55
2. Ibarra	55
3. Logroño	52
4. EHU	48
5. Ultzama	47
6. Xota	44
7. Soloarte	38
8. Muriedas Urrutia	36
9. Sestao	35
10. Sasikoa	29
11. Aretxabaleta	28
12. Arnedo	26
13. Gazte Berriak	22
14. Cerverano	13
15. Jarrilerros	12
16. Albelda	(Erretiratu)

## HURRENGOA ▶

## Gazte-Berriak - Ibarra.

28. jardunaldia etxetik kanpo jokatu du Ibarrak 13. dagoen taldearen aurka.

BELAUNTZA-OREXA ▶ KULTURA

## Osasunari buruzko hitzaldiak egingo dituzte

Gaur Orexan eta etzi Belauntzan izango dira, Uli Mankomunitateak antolatuta

## I. TERRADILLOS

Uli Mankomunitateak antolatuta eta Kutzako ikasgelak sustatuta, osasunari buruzko hitzaldiak egingo dituzte urtean zehar Belauntzan eta Orexan. Orexan gaur egingo dute lehenengo jardunaldia, 18:00etan, udaletxeko ganbaran, eta Belauntzan, berriz, etzi izango da, ordu berean, Kultur Etxean. Bietan landuko den gaia zaintzen duen pertsonaren zaintza izango da.

Gaurkotasunezko hainbat gai jorratzea eta eguneroko bizimodurako ohitura eta praktika osasungarriak lantzea da jardunaldi hauen helburu na-

gusia. Gaur Orexan eta etzi Belauntzan antolatu dituzten jardunaldien helburua mendekotasuna duten pertsonak zaintzen dituztenen kontzientzia maila altxatzea, euren buruak ere zaintzen ikastea, eta horrela beren lana baldintza fisiko eta psikiko jasangarrietan egin dezaten lortzea da. Kontuan izan beharko dituzten alderdi nagusiei buruzko jarraibideak eta egin beharreko urratsak aurkeztuko dituzte jardunaldietan.

Nahiz eta hitzaldi hauek jubenilak izan, herri-erretiratu guztiak daudela gonbidatuta adierazi dute Uli Mankomunitatekoek.

IBARRA ▶ GIZARTEA



## Ipuin kontaketa saio «arrakastatsua»

Erredakzioa ▶ Orexako Udalak haurrentzat eta gaztetxoentzat Aste Santuko oporraldia dela eta antolaturiko ludotekaren egitarauaren barnean, Enkarni Genuak *Erreka mari* txotxongilo ikuskizuna eskaini zuen pasa den astean. «Oso arrakastatsua» izan zen euskal mitologiako pertsonaia batean —lamia edo ibaietako jenioa— oinarritutako elezaharra, haurrak nahiz hel-

duak, 65 pertsona inguru, elkartu baitziren. Orexako haurrez gain, inguruko herrietatik jondakoak ere izan ziren. Lizartza, Belauntza, Gaztelu eta Leaburu-Txarama, besteak beste. Antolatzaleek eskerrak eman nahi dizkiete bertaratu ziren guztiei eta aurrerantzean egingo dituzten jardueretan parte hartzera gonbidatu eta animatu nahi dituzte. HITZA

- ▶ hilberriak
- ▶ urteurrenak
- ▶ eskertzak

Gipuzkoan  
50.000  
etxetara

**ESKELAK**  
19:00ak arte hartzen dira  
Telf.: 943 65 56 95  
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info

HITZA guztietan prezio beragatik

GAZTETXE MARTXA ▶



**Leitza.** Atzo goizean ailegatu zen Gaztetxe Marxka Leitzaldera. Sei gazte zetozen gaztebez gaztebe; Atekabeltzen zain zituzten bertakoak eta Goizuetako hainbat gazte ere. Marxkak zeharkatu dituen beste gaztebetako esperientziaren eta lanaren berri jaso zuten. JAIONE ASTIBIA



**Bilera.** Oraindikoa Gaztetxe Marxka izandu den gaztebe berri jaso zuten Leitzako Atekabeltzen bildutakoek. «Herriz herriko errealitateari erantzunez, ezaugarri amankomunak dituzte. Eta herrian murgiltzea oso garrantzitsua da denontzat», baieztatu zuten. J. ASTIBIA



**Gosaria.** Marbarekin helburuetako bat «harremanak sortzea» izanik, elkar ezagutzeko bide bat bada, mahai inguruko ere, eta halaxe egin zuten Leitzan, bilera eta gero: hamaiketako egin. J. ASTIBIA



**Ibarrara.** Tolosako San Blaseko lokalean mokadutxo egin ondoren, Ibarrako Gaztebera joan ziren bizikletaz eta furgonetaz. Bertara, eskualdeko herri ezberdinetako gazteak bildu ziren. ESTI ZEIZA



**Muralak.** Ibarrako Gaztebearen parean murala margotzen jardun zuten arratsaldean zehar, bizikletaz zetorren jendea itxaron bitartean. Murala bukatu ostean, Tolosara abiatu ziren, Trianguloan Bonberenea txaranga eta Mulanbo perkusio taldearekin kalejira egiteko. N. URBIZU

# Atekabeltza eta Bonberenea, Gaztetxe martxa lokarri dela

Leitzaldea eta Tolosaldea lotuz, atzo hemendik igaro berri da Gaztetxe Martxa: «Oso errealitate desberdinak» izanda, guztietan «euren baloreen alde» lanean

JAIONE ASTIBIA

Gaztetxe Martxa, atzo igaro zen Leitzaldetik eta Tolosaldeetik, bi eskualdeetako gaztebetan egonaldia eginez. Herri haue-tako gazteekin oraindik bisita-tu dituzten beste herrietako gazte antolamenduaz, esperientziez, mintzatu ziren mar-txarekin etorri ziren sei lagun-ak, eta lekuan lekuko berri ere jaso zuten trukean, askota-riko ekitaldiak eginez.

Atzo goizean, uste baino be-randuago baina, aillatu zen Gaztetxe Marxka Leitzako Ate-kabeltzera. Lekukoa han ber-tan jaso zuten zain zeuden Lei-tzako eta Goizuetako gazteek. Salda beroa eta haragi-toma-tea gosalduta eta elkar ezagutze-ko jokoak egin zituzten, han bildu ziren gazteek; esan, esko-la ordua ere bazenez, ikasle jendeak atsedean tarteak baliat-u zituela sartu-aterak egiteko. Lekunberri aldera abiatu bai-

no lehen, herrian barrena kale-jira egin zuten gazteek, txokoetara euren aldarriak hedatuz, musikaz eta alaitasunaz baliat-uz, orain oinez, gero lasterka. Aitatu herriko plazara Guardia Zibilaren bi patrol etorri zitzaiz-kiela. Gazteek zeramaten pan-kartako esaldia apuntatzen aritu ziren ustez, gero atzetik jarraitu zitelarik. Gazteek be-ren martxarekin jarraitu zuten, gainerako oinezkoen kurio-sitatezko begiradapean.

Bazkaritakoa Larraun alde-aren eginda gero, zazpiak aldera iritsi zen marxka Tolosaldera. Han, Tolosako Bonberenea, Sanblazpiko, Villabonako Ond-do eta Anoetako eta Ibarrako gaztebeek elkarrekin antola-tutako ekitaldiak egin zituzten, herri hauek guztiak bizikletaz zeharkatuz. San Blas auzoan egin zioten ongietorria Gazte-txe Martxari eta lekukoarekin, bizikletaz joan Ibarrara, han hormirudia egiteko. Handik

gero, bueltan, Tolosara, joate-koak ziren. Anoetarantz, Villa-bonarantz eta Zizurkilerantz jarraitzeko.

Martxako parte-hartzaileek adierazi zuten, hilaren 21ean Maulen hasi eta Euskal Herriko gaztebeek gaztebe dabilen marxka honen helburuetako bat «gaztebe artean loturak eta harremanak sortzea» da.

**Lekuz leku, balore berak**

«Orain arte ikusitakoarekin, ikasi dugu leku guztietan ba-daudela prest gazteak euren baloreen alde lan egiteko, oso errealitate desberdinak izan arren. Gainera, bakoitzak bere lekuan egiten du lan, baina ez gaude isolatuta, elkarrekin ari gara». Gehienbat Zuberoa, Na-farroa Beherea eta Lapurdiko herrietan ibili direlarik orain arte, haietako esperientziak kontatu zituzten.



Harpidedunei banatua ▶ 2006ko apirilaren 26a, asteazkena ▶ IV. urtea

GAURKO EGURALDIA



15 hotzena 10

BIHARKO EGURALDIA



HITZA-KO BEZEROEN ARRETA ZENBAKIA

943 30 43 46

**AGENDA ▶**

**DEIALDIAK**

**Tolosa.** Alpino Uzturre elkarteak Zariketa mendikatera irteera antolatuta du iganderako, hilaren 30a. Mendigaina mendia igoko dute bidean. Izen-ematea, elkartearen (Gudari, 5. 943 65 27 89).

**HITZALDIAK**

**Tolosa.** *Emakumea eta hiria: sostengarritasun afektiboa.* Hizlariak: Teresa del Valle eta Isabela Velazquez. Aurkezlea: Arantxa Urretabizkaia. 20:00etan, Kultur Etxean. Naturgintza Jardunaldietan.

**MUSIKA**

**Aitzo.** Donato Goienetxek eta X. Arakamak perkusio eta trikitixa kontzertua emango dute, 18:00etan, elizan.

**GUARDIAKO FARMAZIAK**

**Gaur**  
Leitza. Plaza, M. Elbarren 36. 112.  
Tolosa. Morant, R. Zabalzarreta, 1. 943 67 38 49.

**IRRATIA**

**Txolarre irrati**  
**(107.5, 101.2 FM)**

11:00-14:00. *Tolosaldeko ahotsa* magazina: eguraldia Joxe Landarekin, HITZaren errepassoa, elkarrizketak, albisteak, agenda, lehiaketa, disko eskainiak...  
18:00-19:00. *Irauli uhinak*, Gaztesareak prestatzen duen saioa, Arrosa Irrati Ekoizpen Zentroaren eskutik.  
19:00-21:00. *Tolosaldeko ahotsa* (errepikapena).  
21:00-22:30. *Bide okerretik*, Euskal Herriko musika mugimenduari buruzko saioa.

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

**ARGAZKI LEHIAKETA ▶**

**BURGOS ▶**

**Miren Aldunberri (Tolosa).**

Donejakue bidea egiteko baliatu du Aste Santuetako oporraldia Miren Aldunberri. Hala dio III. HITZA Argazki Lehiaketara bidalitako irudian: «Donejakue bidea egiten ari ginela Burgosen, eta herri txiki batetik pasatzerakoan (Castrojeril), horrelako paisaia ikusi genuen. Burura etorri zitzaigun Kixotek esandakoa: 'Ancha es Castilla, Sancho'».



**LANDAK ▶**

**Naroea Ezeiza (Ibarra).**

Landetan igaro ditu oporrak ibartar honek: «Kaixo, lagunok. Argazki hau aukeratu dut lehiaketan parte hartzeko. Apirilaren 14an ateratu nuen. Soustons inguruan dagoen lakua agertzen da, Vieux Boucau-tik oso gertu. Eguraldi onarekin eta familia arteko giro onean pasatu ditugu egun apur horiek».



**URTE ASKOAN**  
Oier Apezetxea Muiagorri (Tolosa). Gaur 3 urte. Zorionak eta muiuxak familiakoan partetik.



**ZORIONAK**  
Zorionak eta bustiko degu. Ondo pasa zuen seme-alaben partetik eta, batez ere, iloba guztien partetik.

**Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.**

▶ HITZaren egoitza TOLOSAN Araba etorbidea, 5 behea

▶ HITZaren egoitza LEITZAN Udaletzeko bulegoa

**hitza**  
agurren tarte

Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak...

**hitza** *lagunen*  
**txokoa**

▶ HITZAko harpidedunen artean zozketatutako

Tolosako Lizarribar oinetakoaren DENBORALDI BERRIRAKO OINETAKOen irabazlea:

EDURNE MUJKA MARTINEZ (IBARRA)



Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZaren harpidedun ordaintzaileen artean zozketak astero